



**Arartekoaren ebazpena, 2012ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gomendatzen zaio gizarte laguntza baten iraungipena ondorioz gabe utz dezan arrazoiaren desegokitasuna dela-eta.**

### Aurrekariak

1. (...)i, kexagileari kautelaz diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zitzaion, eteteko ebazpen idazkian azaldutakoaren arabera, *"no acudir a la u. base en fecha acordada"*. Izan ere, apirilaren 12an Bilboko Udalak idazki bat bidali zion kexagileari elkarrizketa batera deitzeko udal horretako Kontrol eta Lkuskaritza Negoziatuan *"Zuretzat interesgarria den gai bati buruz mintzatzeko"*, aipatutako idazkian azaltzen den moduan. Idazki hori 18an jaso zuen, baina ez aintzat hartu, kexagilea ez baitzen hitzordura joan.
2. Horren ondorioz, ekainaren 21ean, prestazioa kautelaz eteteko Foru Agindua eman zen, goian aipatutako arrazoia zela-eta. Bertan azaltzen zenez, kautelazko etete hori *"paso previo al procedimiento de extinción"* izan zen.
3. Irailaren 23an irailaren 19ko ebazpen bidez eta hasieran aipatutako arrazoiarengatik, hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan hitzordu batera joan ez izanagatik, eskubidea iraungitzen zaiola jakinarazten dion idazki bat jaso zuen.
4. Hilabete bereko 26an kexagileak berraztertzeke errekurtsua aurkeztu zuen kautelazko etetearen aurka.
5. Hori dela-eta kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean, eta horregatik Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari informazio eskaera bat zuzendu genion, zehazki, alegazio epe bat irekitzeko jarraitutako izapideen berri izateko, bai kautelazko etetearen prozeduraren esparruan bai eskubidearen iraungipenari dagokionez, baita foru aldundiak eskubidearen iraungipena bideratzeko izandako arrazoi berri izateko ere hori egiteko arrazoirik ez dagoela dirudienean. Foru Aldundiak bidalitako erantzuneko idazkian ez dira kontu horiek aipatzen.

### Gogoetak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren 48. artikulua prestazioaren ordainketa kautelaz eteteko aukera ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta onartzeko edo mantentzeko eskatutako baldintzetako bat galtzea dakarren egoera baten aurrean.



Zentzu horretan, 147/2010 Dekretuaren 12.1.i artikulua zera ezartzen du diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titular diren pertsonen betebeharrak gisa: *“Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolahi ere, kontuan izango dira Gizarteratze Hitzarmenean jasotako kasu bereziak”*. Horrela bada, kexagileak behar hori urratu zuela uste dugu Bilboko Udaleko Kontrol eta Ikuskaritza Negoziatuak apirilaren 12an bidalitako idazkia kontuan hartu ez zuenean. Idazki hori kexagilearen senide bat jaso zuen hilabete bereko 18an.

Horrela bada, 147/2010 Dekretuaren 43.2. artikulua ezartzen duenez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zitekeen, besteak beste arrazoi hau dela-eta: *“Titularrak edo bizikidetzaren unitateko kideren batek prestazioa lortzean hartutako betebeharrak bat aldi baterako ez betetzea, bereziki dekretu honen 12. artikuluan adierazitakoak”*. Etete hori eragin zuten arrazoiak desagertu arte mantenduko da, dekretuaren 46. artikulua xedatzen duen moduan.

Bestalde, dekretuaren 49. artikulua diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzeko arrazoiak ezartzen ditu. Aginduan aipatutako 12 arrazoiaren artean ez da jasotzen administrazioaren aurrean ez agertzea, aipatu dugun moduan, eteteko arrazoiak bada ere 43.2. artikulua araberak.

Erakunde honen araberak, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen iraungipena ez da egokia kasu honetan, foru aldundiak berak eskaintutako datuen araberak ez baitago horretarako inolako arrazoirik. Bilboko Udaleko Kontrol eta Ikuskaritza Negoziatuaren aurrean agertu ez izanaren ondorioz, diru-sarrera bermatzeko errenta aldi baterako eten beharko litzatekeela uste dugu, eta etete hori mantendu beharko litzateke hura eragin zuten arrazoiak desagertu arte, 147/2010 Dekretuaren 45. artikulua xedatzen duen moduan.

- Bestalde, kexagilea entzunaldiko izapide batera deitzeko jarraitutako izapideen inguruan, aurrekarietan aipatu den moduan, Foru Aldundiaren erantzunean ez da inolako aipamenik egiten horren inguruan. Informazio falta hori ikusita eta kexagileak horren inguruko inolako idazkirik jaso ez duela baieztatzen duela kontuan hartuta, foru erakundeak 147/2010 Dekretuaren 53.2. artikulua agindutakoa urratu duela uste dugu. Bertan zera ezartzen da: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularrari adierazitako bizilekura igorrita, prozedurak oinarri dituen arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak adieraziz, baita ebazteko eta jakinarazteko epea eta 55. artikuluan ezarritako epean esanbidezko ebazpenik ezak izan ditzakeen ondorioak ere, eta hori guztia interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten”*.





Interesdunak dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izateko epea irekitzeak duen garrantzia, ez da soilik legezko agindu bat, baita oinarritzko tresna ere pertsona horiek defendatu ahal daitezen administrazio egintza batek eskubide bat nolabait kaltetzeko duen aukeraren aurrean. Egoera hori da, hain zuzen ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 54.1.a artikulua idatzketa inspiratzen duena, eskubide subjektiboen egintza mugatzaileak arrazoitu daitezkeen eskatzen baitu, egintza horien eragina pairatzen duen pertsonak, arrazoiak ezagututa, haien kontra egin ahal dezan.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

**14/2012 GOMENDIOA, urtarrilaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailari egina**

Diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzen duen irailaren 19ko ebazpena ondoriorik gabe utz dezan.

Etetea bideratzeko arrazoirik dagoela antzematekotan, prozedurari berriro hasiera eman diezaion entzunaldiko izapide baterako deialdi batekin.

